

Aukeratu ezin duzun gauza bakarra

Miribilla, 2016-IX-17. EH Bilduren mitina: "Hil ezin zenituzten langileen seme-alaben ordua" (*). Miren Larrionen hitzak dira. Kanpainaren profil baxuko mezuak kontuan hartuta (denak lagun, denak adosteko prest, antagonismo politikoa desagertua), Larrionen hitzak markatuko gidoi txepetik atera omen ziren.

Zergatik? Agian, aukeratu ezin dugun gauza bakarrari buruzko aipua zelako. Nortasuna eta identitatearen kontzeptuen inguruko zerbait esan nahi zigulako, ziurrenik nahi gabe. Nor gara? Akaso gure identitatea hautatu ahal dugu? Zinezko identitatea diseinatu ahal dugu denboraren poderioz, bizitza baten bilakaeraren emaitza bezala? Hil ezin zituzten langileen seme-alabak gara ala ez? Hau ezin dugu hautatu, gurekin dator ala ez.

Gaurko gizartean, identitate asko gurutzatzen dira gure barnean, zer garen eraikitzeko prozesuan. Ia guztiak hautatuak dira, sehaskatik ez datoz gurekin, eta bizitza osoan alda ditzakegu. Abertzaleak ala espainiar zaleak izan gaitezke; kristauak ala ez; ezkertiarak ala eskuindarrak; ekologistak ala ez; sexuaren inguruko hautuak... eta abar. Denok ezagutzen dugu hautu horien artean mugitu den norbait (urte gutxitan gauza bat eta kontrakoa izaten).



Iván Giménez

KAZETARIA

@lvnGimnez

La Polla punk taldearen omenezko kontzertuan abesti hura berriro entzutean, arreta berezia jarri nuen nire ingurukoengan. Eta langile haien seme-alabak ziruditen, barneko zerbaitek zirrara eragiten zielako

Bestalde, Messi edo Ronaldo ez bazara, bizimodua ateratzeko zure lan-gaitasuna saldu beharko duzu, derrigorrez, egunero eta alternatibarik gabeko merkatu krudel batean. Ez dugu aukerarik. Ezin dugu hortik ihes egin. Orduan, zertan oinarritzen da gure benetako iden-

titatea? Zer gara, ezinbestean? Gurekin datorrena eta bizitza osorako gurekin egonen dena: lan egiteko beharra.

Gauzak horrela, aukeratu ezin duzun hori zara zu, ez besterik. Horregatik diot: "Hil ezin zenituzten langileen seme-alabak gara" esateak gure sustraian dagoen zerbait azaleratzen duela, gure sakonean gordeta daukaguna argitara ekarriz. Azken finean, langile haien seme-alabak gara ala ez. Orain gutxi, Iruñean, La Polla punk taldearen omenezko kontzertuan abesti hura berriro entzutean, arreta berezia jarri nuen nire ingurukoengan. Eta langile haien seme-alabak ziruditen, barneko zerbaitek zirrara eragiten zielako.

Ordea, Ramón Espinarrek (Madrilgo Podemoseko buruzagia) bere burua saldu zuen zorigaitzoko txio batean "hil ezin zenituzten langileen seme-alabak gara" aireratu. 2014an idatzi zuen, baina aurten gogoratu diote (nork eta Cristina Cifuentesek) bere aita dela Caja Madrid-eko black txartelak erabiltzen zituztenetako bat. Ramon gaixoak ez du bere aitaren ustelkerien errurik, baina... Zinezko identitatea ezin da asmatu. Harrapatuko zaituzte eta arerioek zure kontra erabiliko dutelako.

* La Polla punk taldearen *No somos nada* abestiko pasartea. ■



**BERNAT
ETXEPARE
LIZEO BERRIA**

HAZTEN GAITU, HAZTEN DUGU

SUSTENGU  **KANPAINA**

"LANDA DEZAGUN EUSKARAREN SAGARTZEA"

LAGUNTZA 1 = SAGARRONDO 1

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarrak.
300.000€ behar du gelak hornitzeko

WWW.BETXEPARE.EUS